

# PIERRE LAFITTE (1901-1985)

PIERRE LAFITTE (G. B.)  
Idazle errikoia, Iparraldekoa  
( 1985-II-23)

Oraintsu il jaku iparraldean Pierre Lafitte, abadea, Euskalerrian aspaldion izan danik idazlerik punterengoe-tarikoa ta euskaltzaiña: ( 1985-II-23).

Ustaritze'ko abadegai-etxe txikian irakasle izan da 1926'an asi eta il arte.

Bere lanak: *Egiazko argia* (Antzerkia), *Julien Heguy apheza*, *Eskualdunen Loretegia*, *Elizako liburu ttipia* (berak geitu ta argitaratua), *Euzkadi* (berea diñoenez), *Kobla-rien legea*, *Euskal-Herriaren alde*, *Kantuz*, *Jesu-Kristoren Bizitza Azilla edo Hilen ilabetea*, *Herriaren aldeko kantuak*, *Murtuts eta Bertze*, *Mende huntako Euskaldun idazleen pentsa-bideak* (Itzaldia), *Idek eta zabal gogo-bihotzak*, *Bernardo Gazteluzar olerkaria*, eta aldizkarietan beste lan asko, baita beste 14 bat antzerki-lan. Erderaz, France'ko erderaz, beste lan asko eta asko. (Ikusi danaren barria, Onandia'ren Euskal Literatura'n, V, 428-434 orrialdeetan.)

Ba-dira urte pare bat azkenengo ikustaldia egin geuntsola, aita Santi'k eta biok. Antxe aurkitu genduan Uztaritze'ko abadegai-etxe txikian, bere zeregiñetan arduratsu baiña zar-itxuraz eta bere abade-jantzi luzea garbi-garbi ez ebala.

Aitatu doguzan bere liburuetatik ateraten dan lez, Lafitte kanonikua, abade erritarra zan, erriko gauzak azter

tzen eta billatzen zalea eta bere erriaren, Iparraldeko Euskalerrriaren maitale zintzoa. Olako gizonak guztiontzat dira maitagarriak.

## BATUA ETA LAFITTE

Lafitte, iparraldeko beste euskalzale askoren antzera, ez zan burrukalaria izkuntza-sailllean: Bertako euskereari indarra emon, laguntza emon, eta kito.

Baiña euskaltzaiña zan eta izate orrek bultzatuta, batu-zale lez agertzen da.

Euskera batuari iparraldeko berezitasunak eta atxea sartzeko erabagia artu zanean, onako au esan ei eban Lafitte'k: Ez zaiteze sartu urperatzen dagoan ontzira". Bera ontzi orretan egoan, baiña egoaldeko euskereak bere bideak artzea naiago eban, sendo jarraitu dagien eta iparraldekoa ikusten eban galbidera sartu ez daiten.

Alperrik izan zan. Euskaltzaindiak oker-bide ori artu eban eta gero ortik jarraitzen da guztion kalterako.

Iratzeder, Belok'eko abatak, be esan eban bein lau edo bost atxe naikoa zirala iparraldeko euskereak bear ebazan bereiztu-bearrak egiteko, baiña Bergara'ko batzarrean 200 atxedun itz eskatu ziran, eskatu eta ezarri. Eta onetan iparraldeko idazleren bat izan zan bultzatu eta bultzagille.

Gure agurra Pierre Lafitte abade ta idazle euskaldunari.

OLAZAR'tar Martin

